

Trans koipeak: Europak gantz horien edukia mugatu du EBn merkaturatzen diren produktuetan

2019ko apirilaren 25ean, Europako Batzordeak 2019/649 (EB) Araudia argitaratu zuen; horrek aldatu egiten du Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 1925/2006 (EB) Araudiaren III. eranskina, animalia jatorriko gantzetan modu naturalean presente dauden trans gantzak ez diren gainerako trans gantzei dagokienez.

Europako Batzordeak elikagaien trans gantzen edukia mugatu du; gehienez ere 2 gramo izango dira, 100 gramo gantzeko

III. eranskinak (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=CELEX:02006R1925-20170726>) elikagaiei gehi dakizkiekeen bitaminak, mineralak eta beste substantzia batzuk zerrendatzen ditu, eta debekatuta, mugatuta edo EBren kontrolaren mende dauden substantziak jasotzen ditu.

Eranskinaren B atalean, "Mugatutako substantziak" izenekoan, aldaketa hauek egin dira:

1. Animalia jatorriko gantzetan modu naturalean presente dauden trans gantzak ez diren gainerako trans gantzen edukia, azken kontsumitzaileari zuzenduriko elikagaietan eta txikizkako salmentarako elikagaietan, ezingo da izan 100 gramo gantzeko 2 gramo baino handiagoa.
2. Elikaduraren sektoreko operadoreek, elikagaien sektoreko beste operadore batzuei azken kontsumitzailearentzat edo txikizkako salmentarako ez diren elikagaiak hornitzen dizkietenean, bermatu egingo dute hornidura jaso duten elikagaien sektoreko operadoreek trans gantzen edukia buruzko informazioa izango dutela, gantz horiek ez direnean animalia jatorriko gantzean modu naturalean egoten diren trans gantzak eta 100 gramo gantzeko 2 gramo trans gantzeko edukia gainditzen dutenean.

APLIKAZIO-DATA

Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean **argitaratu eta hogeii egunera sartuko da indarrean Araudia**

APLIKATZEKO EPEMUGA

Araudia betetzen ez duten elikagaiak **2021eko apirilaren 1era arte merkaturatu ahalko dira**